

EZ OHIKO UDAL KIROL KONTSEILUA: AKTA

Eguna: 2011ko Irailaren 26

Hasiera ordua: 19:30

Amaiera ordua: 21:30

Gai zerrenda:

1. Legealdiko giza baliabide berrien aurkezpena.
2. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntza irizpideen eztabaida eta zehaztapena.
3. Eskaerak eta galderak

Bertaratutakoak:

Oarsoaldea I.K.E.- Mikel Gaztelumendi

Oiartzungo S.S.K.T. – Igor Puente eta Josemi Astunza

Oiartzun K.E. – Enrike Lekuona eta Josean Ibarguen

Txost – Eskarne Irastorza eta Jon Juanes

Hurtzaro ikastola – Alaitz Bergaretxe

Elizalde Herri Eskola – Eva Getaria

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia- Oihan Tello

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikaria- Jokin Sukuntza

Oiartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea- Jokin Agirre

Oiartzun Udaleko Berdintasun zinegotzia- Miren Irigoien

Esait – Martxel Toledo

Hurtzaro Kirol Elkartea- Xabi Salaberria

Hurtzaro Mendi Taldea- Agustin Vital

Honbu kenpo–kai taldea- Alain Isasa

Ez dira azaldu:

Girizia Mendizale Taldea

GEZAK

Euskal Makila taldea

Oiartzun Udaleko Alkatea

Oiarpe K.E.

Okisa S.A.

Power Rangers Areto Futbol taldea

Elizaldetarrak Judo Elkartea

Tximeleta K.E.

Kizkitza Makazaga

Rexu Mazusta

M^aAsun Arizkuren

Lartaun Zikloturistak Elkartea

Girizia sokatira

Girizia eskalada

Girizia txirrindularitza

HELTA

Lehenik eta behin Gazteria eta Kiroletako teknikariak ongietorria ematen die etorritako guztiei eta denon artean bileraren ordu epe bat finkatzen da, kasu honetan 21:30ak delarik, honez gain eskatzen du mesedez 3. puntua (Eskaerak eta galderak) Udal Kirol Kontseilu (aurrerantzean UKK) honetako gaien ingurukoak izatea.

1. LEGEALDIKO GIZA BALIABIDE BERRIEN AURKEZPENA

Gazteria eta Kiroletako teknikariak, Eskola Kiroleko eta Udal Kirol Kontseilua proiektuen koordinatzaile berriaren aurkezpena egiten du Donibane Azkarateren ordeztutako dena.

Honez gain, Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotziak bere burua aurkezten du eta Oiartzungo Alkatesaren, Aiora Perez de San Romanen, ezin etorria aipatzen du honegatik barkamena eskatuz.

2. FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO DIRU LAGUNTZA IRIZPIDEEN EZTABAIDA ETA ZEHAZTAPENA

Gazteria eta Kiroletako teknikariak *Ez Ohiko UKK* honen helburu nagusia azaltzen du, hau da, Irizpideen inguruko minimo amankomuna adostea, aurretik hitz egin ziren irizpideak banan banan ikusten joan eta argi daudenak adostu eta martxan jarri. Aurten, onartutako irizpide hauen pisua Udaletik definituko da, baina etorkizunean Udal Kirol Kontseiluak erabakitzea izango da helburua.

Erabakitzen ez diren irizpideentzako, lan mahai bat osatzea proposatzen da, honetarako deialdi ireki bat egingo genuke, eta honetan finkatuko genuke lan taldearen eraketa (parte-hartzaile kopurua, nola lan egin...). Lan talde honen helburua, aho batez adostu ez diren irizpideen inguruan hausnarketa, azterketa egin eta ondorioetara iristea izango da, Udal Kirol Kontseiluan aurkezteko.

Hau dena ulertarazteko eta gogorarazteko Gazteria eta Kiroletako teknikariak diru laguntzen aurkezpentxo bat egiten du. Bertan azaltzen du irizpide hauetan elkarrean funtzionamendu gastuez ari garela, hau da, ez direla bertan sartzen ez jarduera bereziak, ez eskola kirola eta ezta mendi taldeak ere.

Honekin batera gogorarazten du diru-laguntza jasotzeko eskaeraren aurkezpena Iraila eta Azaroaren artean egin behar dela.

Datuen sarrerarako informatzen da, datu base berri bat jartzen ari dela martxan, oraindik ez dagoela prest, baina ahalik eta azkarren martxan jarriko dela eta lagunduko zaituzteguna bere funtzionamendua erakusten.

Beste batean esan bada ere gogorarazten da, diru laguntzen ordainketa ez dagoela gure esku, eta ahalik eta azkarren egiten saiatuko garela.

Honen inguruan Oarsoaldea Igeriketa Taldeko Ordezkariek galdetzen du ea diputazioko fitxak justifikatzeko nahikoa den Foru Aldundiko aplikaziotik ateratako orriekin. Kontrastatu badaiteke nahikoa dela erantzuten zaio.

Hau eginik, irizpideak zehaztu eta martxan jartzeari ekin zaio.

Banatutako Irizpideen balorazio inkestan jasotako datuak aztertzen dira segidan.

1.- Lizentzi Kopurua: Denak ados azaltzen dira irizpide honekin. Iruzkin bat azaltzen da, irizpide honek izan behar duen indarraren edo pisuaren inguruan, eta esaten da, aurten hori udalak zehaztuko duela, eta hurrengo pausu bat izango dela pisu horiek determinatzea.

IRIZPIDEA ONARTZEN DA

2.- Genero aldagaia: Denak ados daude irizpide bezala garrantzitsua dela, baina nola aplikatzen den inguruan dudak suertatzen dira. Berdintasuna, laguntza positiboa, lehengo urtearekiko konparaketa... bezalako ideiak agertzen dira, eta ez dago oso argi formula egoki bat nola hautatu.

IRIZPIDE BEZALA ONARTZEN DA ETA LAN TALDERA BIDALTZEN DA

3.- Oiartzuarren lizentzi edo izen ematea: Aho batez onartzen da irizpide bezala.

IRIZPIDEA ONARTZEN DA

4.- Euskal Herriko Kirolak (pilota, herri kirolak...)

5.- Bereziki sustatutako jarduerak.

Bi irizpide hauek bateratzeaz hitz egiten da bileran, aurretik ere komentatu omen zen bi irizpide hauek bateratzeaz. 4. puntua finkatzeko eskatzen da, "zeintzuk dira Euskal Herriko Kirolak?". Honi erantzuten zaio Herri Kirol Federazioak bateratzen dituenak izango direla.

Aipatzen da 4. irizpidea kendu eta 5. ren barruan sartzeko, Errebotea, Euskal Makil Jokoa, Herri Kirola bateratuz.

Ez da argi ikusten zein jarduera diren bereziki sustatzekoak, zergatik eta noiz sustatuko diren, beraz eta dena ondo aztertzeko lan taldera bideratzen da puntu hausnarketa

IRIZPIDE HAUEK LAN TALDERA BIDALTZEN DIRA

6.- 12-18 urte bitarteko kirolariak

Irizpide honen barruan azalpena ematen da 12-18 urte arteko bitarte hau dela eskola kirola egitasmoarekin etabar, egindako apustuaren jarraipena, eta adin honetan finkatzen direla etorkizunerako kirol ohiturak.

IRIZPIDEA ONARTZEN DA

Honekin batera **Beteranoen irizpidea** azaltzen da, eta irizpide berri bezala kontsideratuta **LAN TALDERA BIDALTZEN DA, beteranoen irizpidea.**

7.- Kirol modalitate araberako entrenatzaile/kirolari ratioa: Zailtasunak kirol modalitate ezberdinen arabera aldatzen baita.

LAN TALDERA BIDALTZEN DA

8.- Entrenatzaileen Gaitasunak: Puntu honetan gaitasunen neurketaz hitz egiten da, eta Titulazioaren araberakoa izan beharko zuela ikusten da, komentatzen da Foru Aldundia ibili dela edo badabilela baremazio bat egiteko asmoarekin.

LAN TALDERA BIDALTZEA ERABAKITZEN DA

9.- Entrenatzaileen Euskara gaitasuna: Bertan proposatzen da gaitasuna neurtzeko era titulazioaren arabera izatea.

1. maila: EGA, administrazioko 3. hizkuntza eskakizuna, HABE 3. maila, irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna
2. maila: HABE 2. maila, administrazioko. 2. hizkuntza. Eskakizuna, irakaskuntzako 1go hizkuntza eskakizuna
3. maila: Titulaziorik gabe.

IRIZPIDEA ONARTZEN DA

10.- Entrenatzaileen Euskara erabilera: Euskara jakiteaz gain erabiltzearen garrantzia azpimarratzen da, baina, honen jarraipena egiteko zailtasuna handia dela aipatzen da.

LAN TALDERA BIDALTZEN DA

Honen barne Elkarteen Bizitza Euskaraz egitearen proposamena azaltzen da, eta Beste proposamenekin batera biltzen da.

11.- Beste proposamenak:

a) Elkarteen bizitza euskaraz:

IRIZPIDE BEZALA ONARTZEN DA ETA LAN TALDERA DOA.

b) Kirolari ezinduak: Oarsoaldea Igeriketa Taldeko Ordezkararen proposamena

Ekintza positibo bezala ondo ikusten da, baina nola neurtzearen inguruan sortzen dira dudak.

IRIZPIDEA LAN TALDERA BIDALTZEN DA.

c) Klubaren estruktura: Oarsoaldea Igeriketa Taldeko Ordezkararen proposamena

Euskadiko Kirol Entitateen Erregistroan alta emana egoteak... kontutan hartzeko proposamena.

IRIZPIDEA LAN TALDERA BIDALTZEN DA.

d) Gastu estrukturalak: Haurtzaro Kirol Elkarteko Ordezkararen proposamena

Parte hartze hutserako egin beharreko gastuez hitz egiten da, eta hori ziurtatua egon beharko lukeela esaten da, eta horretarako beste poltsa bat egitea eskatzen da.

IRIZPIDE HAU ERABAKITZEKE GERATU ZEN, BESTE DIRU POLTSA BAT IREKITZEA EZ BAITZEN BAKARRIK UDAL KIROL KONTSEILU HONEN ERABAKIA IZANGO.

3. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez zen ez eskaera ez galderarik egon eta besterik gabe, 21:30tan amaitutzat eman da Ez Ohiko Udal Kirol Kontseilu hau.

Oiartzunen, 2011 .ko Irailaren 26 ean.